



Egitasmoaren egitura eta iraupena

- EZARPEN FASEAK

Irakasleen prestakuntzaren egitura ardatz hartuta, Ezarpen Fasea hiru ikasturte irauteko diseinatuta dago, eta bai liburutegian bai familian burutuko diren lehenengo ekintzak ere iraupen honi lotuko zaizkio.

1go ikasturtea:

- ✓ Irakasleek formazio trinkoa jasoko dute, 2 orduko 9 saiotan egituratzen dena (hilean behin).
- ✓ Ikasturte hasieran haurrek motxila txikiarekin eskola, liburutegia eta etxea lotzen dituen zirkuituari ekingo diote.
- ✓ Liburutegian liburu maletak egongo dira etxera maileguan eramateko, Galtzagorri gomendatutako liburu hornituta.
- ✓ Liburutegian, Bularretik Mintzora egitasmoaren txoko berezi bat sortuko da; bertan, egitasmoak gomendatzen dituen liburuak eskainiko dira.
- ✓ Bibliotekariak BMn dauden herri guztietako bibliotekarien topaketetan parte hartuko du: BMko kide diren bibliotekarien kezak, proposamenak eta formazio beharrak asetzeko.
- ✓ Gurasoentzat formazio bi saio bideratuko dira: “Haur Literatura ezaguera guztien oinarrian” hitzaldia; eta “Haur Literaturaren eragina haurren garapenean” tailerra.

2. ikasturtea:

- ✓ Irakasleek formazioa jasoko dute, 2 orduko 3 saiotan egituratzen dena (hiru hilabete behin).
- ✓ Motxila txikiaren zirkuituak berriz ekingo dio, ikasturte osoan zehar.
- ✓ Maleten maileguak ere aurrera egingo du liburutegian.
- ✓ Aukeran, Irakurketa Klubaren saioak hasi daitezke liburutegian, haur eta gurasoek parte hartzeko.
- ✓ Bibliotekariak BMn dauden herri guztietako bibliotekarien topaketetan parte hartuko du: BMko kide diren bibliotekarien kezak, proposamenak eta formazio beharrak asetzeko.
- ✓ Aukeran, Gurasoen Prestakuntzarako aukerako Tailerrak martxan jarri daitezke.

3. ikasturtea:

- ✓ Irakasleek formazioa jasoko dute: ikasturte hasieran bi orduko saio/jardunaldi bat; ikasturtean zehar *bm buletinaren* bitartez, edota e-mailez hainbat baliabide bidaliko zaizkie gelan erabili ahal izateko; eta, azkenik, ikasturte bukaeran, bi orduko beste saio/jardunaldi bat egingo da ikasturtearen martxa ebaluatzeko eta beharrezko zuzenketa egiteko bideak jartzeko.
- ✓ Motxila txikiaren zirkuituak berriz ekingo dio, ikasturte osoan zehar.
- ✓ Maleten maileguak ere aurrera egingo du liburutegian.



- ✓ Aukeran, Irakurketa Kluben saioak egin daitezke liburutegian, haur eta gurasoek parte hartzeko.
- ✓ Bibliotekariak BMn dauden herri guztietako bibliotekarien topaketetan parte hartuko du: BMko kide diren bibliotekarien kezak, proposamenak eta formazio beharrak asetzeko.
- ✓ Gurasoentzat formazio bi saio bideratuko dira: “Haur Literatura ezaguera guztien oinarrian II” hitzaldia; eta “Haur Literatura haurraren irudimenean” tailerra.
- ✓ Aukeran, Gurasoen Prestakuntzarako aukerako Tailerrak martxan jarri daitezke.

- JARRAIPEN FASEA

Jarraipen Fasean, ikasturtero:

- ✓ Formazioari buruzko eguneratze lana *bm Buletinaren* bidez gauzatuko da. Beraz, honen bitartez hedatuko dira bibliografiak, proposamen berriak, iritziak eta berriak, Bularretik Mintzora osatzen duen komunitate osorako.
- ✓ Mailetak eta motxilak, oraintxu arte bezala, biblioteketatik bideratuko dira.
- ✓ Gurasoak formatzeko aukerak mantenduko dira, hitzaldiak eta lantegiak proposatuz gurasoek parte hartzeko. “Irakurri aurretik irakurri”; “Elkar entzuteko gunea sortzen”; “Emozio hezkuntza eta haur literatura”; “Zer egin liburuekin: kontu kontari”. Biblioteka bakoitzak aukeratuko du, bere ahalmenaren arabera, burutu nahi dituen ekimenak.
- ✓ Irakurketa Kluben aktibitatea bere horretan mantenduko da. Nahi duten herrietan aukeratuko dituzte saioak eta adin tarteak.
- ✓ BMn dauden herri guztietako bibliotekarietzako topaketak burutuko dira: bibliotekariak gurasoak, haurrak eta eskolak liburutegira erakartzeko garaian dituzten kezak, gabeziak eta beharrak, denen artean bideratzeko.
- ✓ Herri zein ikastetxe batek formazio saioak mantentzeko interesa erakusten badu, edota jarraipen berezi bat behar baldin badu, Bularretik Mintzorak eskainiko dio behar duen sostengua hori burutu ahal izateko.